

# Olarizun, Arabako Errioxaren alde

Milaka euskaltzalek Araba Euskaraz ospatu dute Olarizuko zelaietan, Gasteizen, 'Mugaezin' lelopean.

Arte eszenikoz, dantzaz, musikaz, bertsolaritzaz eta magiaz bete dute Olarizu, eta Oiongo San Bizente ikastolari laguntzeko baliatuko dituzte irabazi guztiak.

Testua UNAI ETXENAUZIA  
Argazkiak IÑIGO URIZ / FOKU



## 1 | JOLASAK

Goizeari goizetik jolasak antolatu zituzten Olarizuko zelaietako hiru guneeetan.

## 2 | AZOKA

Saltokiak ere jarri zituzten igandean: jakiak, artelanak, arropa... denetik saldu zuten.

## 3 | DANTZAK

Dantza ikuskizunak egin zituzten Arabako ikastoletako ikasleek.

## 4 | BERRIA

BERRIAK saltokia jarri zuen, Araba Euskaraz-ekin akordioa lortuta.

## 5 | JOLASAK

Festara joan ziren ikasleek ur jolasak egin zituzten beroari aurre egiteko.

## 6 | AURKEZPENA

Erakundeek parte hartu zutek irekiera ekitaldian, eta ikastolak IKA euskaltegia omendu zuen.



**O**iongo San Bizente ikastolaren (Araba) aldeko jaia izan zen igandeko Araba Euskaraz, eta, bide batez, IKA euskaltegia omendu zuten, urteak daramatzalako lanean Arabako Errioxako helduen euskalduntzearen alde. Goizean jada bazen jendea Olarizun, Gasteizen, baina eguerditik aurrera hasi zen jende uholdea zelaietara iristen. Orduak pasatu ahala, bero handiagoa egin zuen, eta bertaratutako milaka lagunak gerizpea topatzera behartu zituen.

Egun eguzkitsuak lagundu egin zuen, eta umoretsu zeuden Olarizuko zelaietara inguratu ziren euskaltzaleak. Haur, gazte, guraso... Araba Euskaraz jaiaren 44. aldia ospatu zuten herenegun lurraldeko ikastolek, *Mugaezin* lelopean. Urtero legez, bildutako dirua ikastola edo proiektu baterako bada ere —Oiongo San Bizente ikastola aurtentzen—, Arabako ikastolek elkarlanean prestatu zuten dena, jai handian ezerk huts egin ez zezan: Lautada, Argantzon, Assa, Armentia, Amurrioko Aresketa, Aguraingo Lautada, Bastida eta Laudio. Guztiak batu ziren Oiongo San Bizente zentroaren alde. Hirugarren urtez egin dute Araba

Euskaraz Olarizun. Urtero Arabako ikastola batek hartu arren ardura, zortzi ikastolak bat eginda aritzen dira beti. Urte osoko lanari ginga jarri zioten, horrenbestez, atzo.

Egun ederra izan zen igandekoa Olarizun egoteko, giro eta eguraldi ona izan baitzuten. Euskalmetek iragarrita zeukan bezala, 26 graduraino igo zen temperatura eguerdi-arratsaldean, eta horrek lagundu egin zuen Arturo Lopez de Lacalle Oiongo San Bizente ikastolako zuzendariaren nahia betetzen: «Egun gogoangarria, zoriontsua eta alaia izan dadila, eta, aldi berean, ahalik eta erosoena, gurekin Arabako ikastolen jaia ospatzera datozen guztientzat».

Goizeko hamarretan ekin zioten jaiari, hasierako ekitaldiarekin, Olarizuko etxaldeen ondoko auditorium begetalean. Hasierako ekitaldi horretan izan ziren, besteak beste, Beatriz Artolazabal Gasteizko alkateordea, Ramiro Gonzalez Arabako ahaldu nagusia eta Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua. Ikastoletako ordezkarien eta agintarien diskurtsoekin batera, Maider Lasa Santamariaren abestia eta Jose Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioko ikasleen dantza bat ere izan ziren entzungai eta ikusgai.

Unai Mendizabal Arabako Ikastolen Elkarteko lehendakaria Bildarratzen presentzia ez baliatu zen hurrengo Eusko Jaurlaritzan.



«Amesten genuen eguna izan zen igandekoa; euskaltzale mordoia etorri zen ikastolei babesa ematera»

«'Mugaezin' leloa aukeratu genuen aurtengo aldirako, euskarak ez daukalako mugariko»

**ROBERTO GONZALEZ**  
Araba Euskaraz-eko koordinatzailea

ri eskatzeko 2023an onartutako Hezkuntza Legea «lehenbailehen» garatu dezala. «Datozen lau urtetan hezkuntza politikak gidatuko dituenari ikastolen mugimendua onar dezala eskatzen diogu; elkarrekin egin dezagun etorkizunerako bidea, eskura ditugun eronkei aurre egiteko», aldarrikatu zuen. Bildarratzek jaso zuen mezua, baina oraindik ez daki saileko buru izango den edo ez.

Hiru gunetan banatu zituzten eguneko ekintzak: Lautada, Mendia eta Erreka. Batetik bestera ibili ziren gaiteroak, Gasteiz Kantuz, Arai erraldioen konpartsa eta Alt Maresmeko *casteller* taldea ondoan zizutela. Euskal dantzen topaketa, *Bertotan* saioa, Maria Arandiaren *Magia eta mirariak* familian ikuskizuna, eta Goazen-en karaokoa izan ziren goizean. Eguerditik aurrera, musika taldeak igo ziren oholtzara. Ibil Bedi, Mirotz, Akerbeltz eta Araba Euskaraz-en aurtengo kantua konposatu duen EH, Mertxe taldeen kontzertuek hartu zuten tokia.

#### Berlaratuie eskerrak

Igandekoa oroitzapenerako eguna izan zen arren, balorazioa egiteko eguna izan zen atzokoa. Roberto Gonzalez Araba Euskaraz-eko koordinatzaileak aitortu du espero zutena lortu dutela. «Amesten genuen eguna izan zen igandekoa, euskal-



tzale mordoia etorri ziren ikastolei babesa ematera. *Mugaezin* leloa aukeratu genuen aurtengo aldirako, euskarak ez daukalako mugariko; hain justu, hori ikusi genuen atzo [herenegun]». Gainera, «gertakizun berezirik gabeko jai lasaia» izan zela azpimarratu du Araba Euskaraz-eko koordinatzaileak.

Ikastolak bai, baina, batez ere, Oiongo

ikastola izan zen igandeko eguneko protagonista nagusia. Arabako Errioxan dago Oion. Mugakidea da Errioxarekin (Espainia) eta Nafarroarekin. 1976. urtean sortua, Oionen errotua dago ikastola. 1984ko uztailaren 22an ospatu zuten lehenbiziko aldira Araba Euskaraz Oionen. Oso bestelakoa zen euskararen egoera. Arabako Errioxan,

guztira, 398 lagunek ikasten zuten euskara, 128 helduk AEK-ko gau-eskoletan; eta 270 haurrek inguruko ikastoletan. Oiongo San Bizente ikastolan, berriaz, 83 haur zeuden matrikulatuta.

Gaur egun, asko hobetu da Oiongo ikastolaren egoera. 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, eta 201 familiak, 288 ikasle, 34 irakasle eta langilek osatzen dute ikastolaren komunitatea. «Bazterretik ari gara, bazter herritik», azaldu du Araba Euskaraz-eko koordinatzaileak. Baina Oiongo ikastolak «indar zentripetua» eragitea lortu duelakoan dago, «errioxarrak eta haragotik etorri berriak euskarara erakarri» dituztelako. Lau hamarkada pasatxo ditu Oiongo San Bizente ikastolak, eta hori ospatu egin behar dela uste du Gonzalez-ek: «Gure gogoia, borondatea eta grina da Arabako Errioxa euskalduna izatea, Euskal Herri euskaldunearan».

Kooperatiba gisa funtzionatzen du San Bizente ikastolak, eta «kalitatezko zerbitzua» eskaintzea da ikastolaren helburu nagusia. «Familia, irakasle eta ikasle aitzindariak duela mende erdi hasitako ikastolen mugimendua erabat errotuta dago Arabako Errioxan. Urte hauetan guztietan lortu dugu kuadrilla honetako euskaldunak eta ia euskaldunak %4 izatetik %40 baino gehiago izatera igarotzea». ●